

## **Chico y Chica**

Alicia San Juan eta José Luis Rebollo, Chico y Chica musika-bikotea Bilbon sortu zen laurogeita hamargarren hamarkadan, klub-kulturaren eta musika elektronikoaren eklosioan bete-betean. José Luis, Chico, bakarka musikari eta discjockey gisa ere ezaguna da (Madelman, Dj Madel). Alicia, Chica, ahotsaren eta komunikazioaren profesional bat da: irrati-esataria, telebista aurkezlea eta dokumental eta megafonietarako esataria.

Beren lehenengo single-a No me preguntes la hora (Austrohúngaro, 2000) urte hartako Bartzelonako Sonar jaialdiko spotaren sintonia izan zen. Kritikak beren azkeneko CDa, Bomba Latina, urteko single onena izendatu du Rock de Lux aldizkarian. SI (Austrohúngaro 2001) eta STATUS (Austrohúngaro 2004) albumak, tecno programazioak eta hitz kostunbristak, sentsualak eta ameslariak dituzten pop abestiez betetakoak, askotan erabiltzen dira estatuko eta nazioarteko moda-pasareletan (Madrilgo Cibeles pasarela, New Yorkeko Modaren Astea, etab.)

Bartzelonako musika aurreratuaren Sonar jaialdian eta Castellóko Espai d'Art Contemporani-n aritu izan dira, Santiago Cirujeda arkitektoaren lan bat inauguratzen, baita estatuko kontzertu-areto esanguratsuenetan ere (Razzmatazz, Apolo Nitsa edo Mond Club Bartzelonan; Arena-Heineken, El Sol, Ochoymedio, Elástico eta Sala Caracol Madrilen, etab.) Berriki kontzertu bat eskaini dute Mexiko B.F.-ean eta agertokia Soft Cell, Fangoria, Samantha Fox, Astrud eta Locomia bezalako artistekin partekatu dute.

Beren zuzeneko kontzertuak hoztasun eta beita nahasketa bat dira, telebista-playbackaren giro batean. Asmo handiko magia-saioak, imitazioak, txistek, zuzeneko musika teknoa, koreografia ez-perfektuak eta publikoarekin parte hartzeko jolas "naïve"ak.

[www.chicoychica.com](http://www.chicoychica.com)

[www.myspace.com/posibiliti](http://www.myspace.com/posibiliti)

[www.myspace.com/djmadel](http://www.myspace.com/djmadel)

### ARGITARATUTAKO DISKOAK

Lujo y Miseria. cd bilduma (Austrohúngaro 1998)

No me preguntes la hora. ep cd (Austrohúngaro 2000)

Si. cd albuma (Austrohúngaro 2001)

Status. cd albuma (Austrohúngaro 2004)

Bomba Latina. ep cd (Austrohúngaro 2007)

#### FILMETAKO ABESTIAK

Bomba latina. Juan Flan-en CHUECATOWN (Filmax 2007)  
luzemetraiaren soinu-banda.

#### BIDEOKLIPAK

Lady Olé (2003). Félix Daniel-en zuzendaritza artistikoa. Jon Mikel Eubaren muntaketa.

Te van a matar (2004). Chico y Chica-ren zuzendaritza. Jon Mikel Eubaren muntaketa.

Vaquero (2005). Alarremanguillé-ren errealizazioa eta muntaketa.

La vez que mejor (2006). Chico y Chica-ren errealizazioa.

Tierras de Egipto (2007). Chico y Chica-ren errealizazioa.

Bomba Latina (2007). Hannot Mintegiaren errealizazioa.

#### SARIAK

Sortzaile gazteentzako Hugo Boss Search 2002 saria.

#### HITZALDIAK ETA TAILERRAK

Desadostasunak mintegia. Feminismoaren mutazioak: genealogiak eta praktika artistikoak. Arteleku. Donostia (2005).

Red Bull Music Academy-rako tailer-hitzaldia. Bilbao (2006).

"Itinerario para una noche bilbainí hitzaldia, Periferiak 07.

Bidebarrietako liburutegia. Bilbao (2007).

Kultura-kudeaketari buruzko hitzaldia. Valentziako

Unibertsitate Publikoa (2007).

#### ERAKUSKETAK

Switch On the Power. Komisarioa, Xavier Arakistain  
(Montehermoso Kultur Gunea. Vitoria-Gasteiz (2007). Vigoko  
Arte Garaikidearen Museoa (2006).

Whatever. Komisarioak, Alex Brahim eta Thomas Reydellet. Off  
Limits Galeria. Madril (2007)